

Paziente onkologiko pediatrikoen gurasoen erresilientzia prozesuan lagungarriak diren aurre egite estrategiak identifikatzea:

Literatura zientifikoaren berrikusketa.

Gradu Amaierako Lana
Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola



Hitz kopurua: 6.688

Ikaslea: Irene Álvarez Flores

Zuzendaria: Ainhoa Ulibarri Ochoa

2018-2019

Gasteizen, 2019ko maiatzaren 8an

Esker onak

*Lehenik eta behin, eskerrik handienak
urte hauetan zehar nire ondoan egondako
familia, lagun eta bidelagun guztiei.*

*Eskerrik onenak pertsonalki zein
profesionalki hazten lagundu didatenei.*

*Azkenik, eskerrik asko Gradu Amaierako
lan honetan gidatu eta lagundu didan
zuzendariari, Ainhoari.*

Aurkibidea

1. Sarrera	7
2. Esparru kontzeptuala eta justifikazioa	9
3. Helburua.....	14
4. Metodologia.....	15
a) Diseinu mota:	15
b) Bilaketa estrategiaren prozesua:.....	15
c) Barneratze eta kanporatze irizpideak:	16
i) Barneratze irizpideak:.....	16
ii) Kanporatze irizpideak:.....	17
d) Artikuluaren hautaketa prozesua:.....	17
c) Zuhaitz kategoriala:	18
5. Emaitzak eta eztabaida	19
a) Erresilientziaren garapena minbizia duten paziente pediatrikoen gurasoengan:.....	19
b) Aurre egite estrategia lagungarriak:	21
6. Ondorioak, inplikazioak eta mugapenak.....	29
7. Bibliografia.....	32
8. Eranskinak.....	37
a) 1. Eranskina: Kontzeptu taula	37
b) 2. Eranskina: Bilaketa estrategia	38
i) Datu baseak:	38
ii) Eskuzko bilaketak:.....	45
c) 3. Eranskina: Fluxu diagrama	50
d) 4. Eranskina: Emaitzetarako artikuluen laburpen taula.....	51
e) 5. Eranskina: Artikulu kuantitatiboen azterketaren irakurketa kritikoa.....	59
i) Artikulu kuantitatibo baten azterketaren irakurketa kritiko garatua	59
ii) Gainerako artikuluen kuantitatiboen azterketaren irakurketa kritikoa	61
f) 6. Eranskina: Zuhaitz kategorikoaren eskema	64

Sarrera

Esparru kontzeptuala eta justifikazioa: Gaur egun, urtero 1000 haur dira gutxi gora behera minbiziz diagnostikatzen direnak Espainian. Nahiz eta helduen minbiziak baino intzidentzia baxuagoa izan, honek izugarritzko inpaktua du bai paziente bai familiarengan, gurasoek bizitzako egoerarik traumatikoen bezala definituz. Hala ere, egoera honen aurrean ikusi da erresilientzia garatzea posible dela, erresilientzia ezbeharrak modu konstruktibo batean gainditu eta hazkuntza prozesu pertsonal bat bezala definituz. Honi gehituz, gurasoek hainbat aurre egite estrategia (*coping*) erabiltzen dituzte egoera honi aurre egiteko. Hori dela eta, haurren gurasoak aldaketa traumatikoen aurrean beren barne oreka bio-psiko-sozialari eusteko gai izateaz gain, hazkuntza prozesu bat garatzean erresiliente kontsideratuko dira, eta horretarako, aurre egite estrategia eraginkorrek zeintzuk diren identifikatzea beharrezkoa da.

Helburua: Paziente onkologiko pediatrikoen gurasoen erresilientzia prozesuan lagungarriak diren aurre egite estrategiak identifikatzea.

Metodologia: 2008 eta 2019 urte bitartean argitaratutako bibliografia erabili da literaturaren berrikusketa burutzeko, bilaketa gaztelaniaz eta ingelesez publikatutako artikuluetara mugatuz. Datu base hauek kontsultatu dira: *Pubmed*, *Medline*, *Cinhal*, *Psycinfo*, *Cochrane Library* eta *Cuiden*. Horrez gain, eskuzko bilaketak ere burutu dira, horretarako *Psycho-Oncology*, *Cancer Nursing*, *European Journal of Oncology Nursing*, *Clinical Journal of Oncology Nursing*, *European Journal of Cancer Care*, *Journal of Advanced Nursing* eta *Psicooncología* aldizkarietan eta RNAO eta NICE praktika klinikorako gidak kontsultatuz. Guztira 23 artikulua aukeratu dira proposatutako helburuari erantzuteko.

Emaitzak eta eztabaida: Minbizi pediatrikoari aurre egitean, guraso gehienak erresilientzia garatzeko gai direla ikusi da. Erresilientzia garatzeko aurre egite estrategiak beharrezkoak dira, ondorengoak lagungarriak izanik: arazoaren ebazpena, sostengu soziala bilatzea (familia, osasun talde eta egoera berdinean dauden gurasoengan), berregituratze kognitiboa eta emozioen adierazpen erregulatua, informazio bilaketa eta otoitz egitea. Bestalde, isolamendu soziala, saihestea edo abolizio emozionala eta distrakzioa *coping* positibo edo negatiboaren barne dauden zalantzan dago, hauek erresilientziaren garapenean lagungarriak ez izateagatik.

Ondorioak, inplikazioak eta mugapenak: Gurasoengan erresilientziaren garapena eman ohi dela ikusi arren, lagungarriak diren aurre egite estrategiak identifikatzeko ikerketa gehiagoren beharra dagoela ikusi da. Bestalde, erizainaren inplikazioaren lerrotik, honek ezinbesteko garrantzia du gurasoen erresilientzia prozesuaren garapenean, gaur egun formakuntza gehiagoren beharra identifikatuz. Organizazio mailatik, gurasoen aurre egite eraginkorrean eta erresilientzia prozesu horretan laguntzeko interesgarria litzake erizainaren

papera ospitalizazioan ez ezik lehen mailako arretan eta talde terapietan integratzeko aukera izatea.


Esparru kontzeptuala eta justifikazioa

Minbizia gizakiaren osasunean inpaktu handiena duen gaixotasunetako bat da, gaur egun, erikortasun eta hilkortasun kausen artean lehenetarikoa izanik. ⁽¹⁾ Minbiziaren definizio generikoaz hitz egitean, *DeVita*-ren onkologiaren tratatuak ondorengoa definitzen du: minbiziak proliferazio zelular anomaloa garatzen duten eta oso heterogenoak diren hainbat gaixotasun barne hartzen ditu. ⁽²⁾ Gaixotasun hauek, era berean, alboko organo eta ehunak inbaditu edo distantziara barreiatu eta metastasiak sortu ditzakete. ⁽²⁾

Minbiziaren prebalentzia oso altua da bai mundu, bai estatu mailan ere, Euskal Herria honen barne egonik. ⁽³⁾ Jakina da batez ere helduei afektatzen dien gaixotasun bat dela; baina haurren ere eragiten du. ⁽⁴⁾ Azkeneko txosten epidemiologikoen arabera, mundu osoan urtero 160.000 haur baino gehiago dira minbiziaren diagnostikoa jasotzen dutenak. ^(4, 5) Mundu mailako haurren minbizi diagnostiko horietatik, *Registro Nacional de Tumores Infantiles*-ek (*RNTI*) 1000 haurren kasuen intzidentzia kokatzen du urtero Espainia mailan. ⁽⁶⁾ Onkologia pediatrikoak 0 eta 14 urte bitarteko umeengan ematen diren neoplasiak barne hartzen ditu. ⁽⁷⁾

Espainia mailan, gehien ematen den minbizi pediatriko mota leuzemia da %30eko portzentaiarekin, ondoren Nerbio Sistema Zentraleko minbiziak %22ko portzentaiarekin eta, azkenik, limfomak %13arekin. ⁽⁶⁾ Haurtzaroko beste minbizi mota batzuk, nahiz eta portzentai txikiagoarekin agertu, ondorengoak dira: neuroblastoma, erretinoblastoma, giltzurruneko minbizia, hezurretako tumoreak eta ehun bigunetako sarkomak, batez ere. ^(5, 6) **(Ikusi irudia 1)**

Irudia 1: Diagnostikoaren arabera Espainiako minbizi pediatrikoen distribuzioa, 0-14 urte bitartean. (Elaborazio propioa)



Iturria: Fundación neuroblastoma. Datos del cáncer infantil en España. 2016. ⁽⁶⁾

Nahiz eta, helduekin alderatuz, paziente pediatrikoen minbiziaren intzidentzia hain handia ez izan, gaixotasun honen diagnostikoak inpaktu handia eragiten du bai paziente bai familia eta ingurukoengan. ⁽⁸⁾ Gertuko senitarteko baten gaixotasunaren bizipena, sufrimendua eta heriotza gizabanakoak aurre egin behar dion bizipenik gogorrena izanik; paziente haur bat denean, honi inpotentzia, sufrimendu handiagoa eta haurrak nahikoa bizitzeko aukerarik izan ez duelaren sentimendua gehitzen zaio. ⁽⁸⁾

Minbizi pediatrikoaren diagnostikoak eta honekin batera datorren bizipenak zeharo aldatzen du bai pazientearen bai senitarteko eta, batez ere, gurasoen bizimodua, bizi kalitatea, etorkizunarekiko ikuspegia eta izateko era. ⁽⁹⁾ Horregatik, gurasoentzat haurraren minbizi diagnostikoa eta ondoriozko gaixotasun larriaren bizipena bizitzako egoerarik traumatikoa bezala definitu daitekeela jasotzen dute hainbat autorek. ⁽⁸⁻¹¹⁾ Diagnostikoarekin batera, antsietatea, konfusioa, haserrea, ezeztapena, etsipena, frustrazioa, kulpa, gauzaez izatearen sentimendua eta beldurra bezalako sentimenduak bere baitan hartzen dituen prozesu bat hasten da. ⁽⁸⁻¹²⁾ Bajjani-Gebara et al.-ek *Cancer Nursing* aldizkarian publikatutako ikerketa baten arabera ⁽¹³⁾, minbizidun haurren 80 gurasoen lagina aztertuz, hauetatik %35-ak estutasuna, %36-ak depresio sintomak eta %45-ak antsietate maila handia adierazi zuten diagnostiko momentuko shock egoeran.

Nahiz eta egoeraren inpaktu handiak zuzenean gurasoengan eragina izan, ezinbestekoak izango dira haurraren gaixotasunaren aurre egite prozesurako. ⁽¹⁴⁾ Hain zuzen, haurrari zerk lagundu diezaiokkeen planteatzean, guraso amultsuak, erreferentzia puntuak, pertsona maitatuen gertutasuna eta oroitzapen zoriontsuak mantentzea beharrezkoak direla ikusi da, besteak beste. ⁽¹⁴⁾ Haurrek beren osotasun fisikoa edo bizitza baldintzatu dezaketen hainbat faktoreri aurre egin beharko diote, interbentzio mediko inbasibo eta mingarriak, tratamenduen bigarren mailako efektuak eta beren pertsona maitatuengandik urruntzea erronka horietako batzuk izanik, ondorioz, gurasoen akonpainamendua eta laguntza premiazkoak izango dira. ⁽¹⁴⁾

Hori dela eta, gurasoek ezinbesteko garrantzia izango dute haurraren gaixotasun prozesuan. Familia kontzeptua nukleo bat bezala kontsideratuz, erlazio oso garrantzitsua existitzen da honen kideen osasunaren sustapen eta mantentze eta gaixotasunaren prebentzio eta aurre egitearen artean. ⁽¹⁴⁾ Beraz, gurasoen larritasuna minimizatzea ezinbestekoa izango da umeei artatze eta zainketa egokiagoak ematea ahalbidetze aldera, baita hauen ongizate psikologikoa bermatzeko ere. ^(12, 14, 15)


Gurasoek gaixotasunaren onarpenarekin sortzen den bizitza berriari moldatzeko beharra dute, zeinetan haurraren zainketei eta tratamenduari buruzko esku eta erabaki hartzeak integratu behar diren, etorkizunarekiko itxaropena galdu gabe. ^(8, 9, 12) Moldaketa prozesu hau **aurre egitea (coping** edo **positive coping**) bezala ezagutzen da, egoera estresagarrien aurrean norbanakoak egiten dituen etengabeko jokabide eta esfortzu

kognitiboen multzoa bezala definitzen dena, Lazarus eta Folkman-ek 1986. urtean ikertu bezala.⁽¹⁶⁾

Lazarus eta Folkman-ek diotenaren arabera⁽¹⁶⁾, egoera bati aurre egiteko bi motatako estrategiak garatzen dira: *arrazionalak* (*arazoari zuzendutakoak*) alde batetik, instrumentalagoak direnak eta arazoa eraldatzeaz arduratzen direnak; eta *emozionalak* (*emozioari zuzendutakoak*) beste aldetik, estresa eragiten duten aspektu emozionalak kontrolatu, moldatu edo lantzen dituztenak.⁽¹⁶⁾ Moldaketa behar honen aurrean, azken urteetan ikerketa ugari egin dira egoera estresagarrietan aurre egite estrategia egokienak zeintzuk diren analizatu eta identifikatzeko aldera, honek pertsonaren ongizate mailan zuzeneko inpaktua baitu.⁽¹⁶⁾

Ordutik hona egindako ikerketek Lazarus eta Folkman-en teoria bera berresten dute, eta gainera, emozio positiboek aurre egite prozesuan duten inpaktu positibo handia baieztatu dute.⁽¹⁶⁾ Honen harira, Campos et al.-ek Lazarus eta Folkman-en ikerketan oinarritutako meta-analisi bat egin zuten, non aurre egite estrategiak 15 dimentsiotan banatu zituzten.⁽¹⁷⁾ **(Ikusi irudia 2)**

Irudia 2: Aurre egite estrategien sailkapena Campos M et al.-en 2004-ko meta-analisiaren arabera. (Elaborazio propioa)



Iturria: Campos M et al. *Afrontamiento y regulación emocional de hechos estresantes: un meta-análisis de 13 estudios.*⁽¹⁷⁾

Beste alde batetik eta azken hamarkadan jasotako psikologia positiboari buruzko literaturan oinarrituz, ikusi da zenbait minbizidun haurren gurasoek egoera traumatiko honi era eraginkorrean aurre egiteaz gain, hazkuntza pertsonal positiboa ere garatzeko gai direla.⁽¹⁵⁾ Honi **erresilientzia** deritzen, eta Fergus eta Zimmerman-ek 2005. urtean definitu bezala⁽¹⁸⁾, egoera traumatikoak eta ezbeharrak modu konstruktibo batean gainditzean datza, hazkuntza

prozesu bat garatuz. Horretarako norbanakoaren barne faktore eta/edo ingurune familiar, sozial eta kulturalaren interakzioak lagungarriak izango dira. ⁽¹⁸⁻²¹⁾

Hala ere, erresilientziaren definizio bakar bat ematea oso zaila da, ikuspegi ezberdinak baitaude. ^(20, 21) Bartelt autoreak 1996. urtean adierazi zuen bezala ⁽¹⁸⁾, zenbait autorek erresilientzia pertsona bakoitzaren barne dagoen ezaugarri psikologiko bat kontsideratzen dute ⁽¹⁸⁾; baina gradualki indikadore psikosozial bat kontsideratzera pasatu da, bereziki traumatikoak diren egoeren aurrean gizabanakoak jokabide positiboak eskuratzeko gaitasuna baitu, ondorio psikologiko negatiboak ekidituz. ⁽¹⁸⁾ Edonola ere, gero eta autore gehiago dira erresilientzia garatu daitekeen prozesu bat dela egiaztatzen dutenak. Hori indartzeko Grotberg-ek 1995. urtean ⁽²²⁾ eta 2002. urtean ⁽²³⁾ egindako publikazioetan adierazi zuen erresilientzia egoera traumatiko batean honi aurre egin, gainjarri, indartuta, adoretuta edota eraldatuta amaitzeko gaitasuna dela.

Azken urteotan errebisio bibliografiko anitz egin dira psikologia positiboaren aldetik erresilientziari eta bizi kalitatea mantentzeari buruz. ⁽¹⁵⁾ Bizi kalitatea, *Osasunerako Mundu Erakundeak (OME)* 1995. urtean definitu bezala ⁽²⁴⁾, norbanakoren kultura eta balio sistemaren barnean bizitzan duen posizioarekiko pertzepzio propioa da, non bere helburuak, itxaropenak eta kezkek erlazionatuta dauden. Beraz, bizi kalitatea bermatzeko eta erresilientzia garatzeko ezinbestekoa da aurre egite estrategia eta faktore positiboak indartzea negatiboak gutxitzea bezain garrantzitsua dela ulertzea. ⁽²⁴⁾

Ondorioz, aurre egite estrategia eta erresilientzia garatzearen artean erlazio estu bat dagoela ikusi da. ⁽²⁵⁻²⁷⁾ Pertsona, beraz, erresiliente kontsideratuko da bere barne oreka biopsiko-soziala bizitzako aldaketa traumatikoei eutsi eta honen gainean eraikitzeko eta hazkuntza bat izateko gai denean, eta horretarako, besteak beste, aurre egite estrategia eraginkorrak beharrezkoak izango dira. ^(17, 26, 27)

Esan bezala, urteetatik hona erresilientzia eta aurre egite estrategien arteko erlazioari buruzko hainbat ikerketa egin dira, baina hauek batez ere minbizia duten helduengan oinarritutakoak izan dira. Oso ikerketa gutxi egin dira pazientea pediatrikoengan, eta are gutxiago minbizia duen paziente pediatrikoen familiari zuzenduak.

Erizaintza arloari dagokionez, erizainak oso paper garrantzitsua betetzen du egoera honetan dauden familiengan. Alde batetik, minbizidun haurrari arreta eta zainketa egokiak emateko funtzioa dute erizainek, eta beste alde batetik, familiarekin aurre egite estrategia eraginkorrak garatzen laguntzen dute. Hori aurrera eramateko, familiak baloratu eta bakoitzaren prozesuaren arabera arreta eta laguntza espezifikoak ematea beharrezkoa da. Komunikazioa eta osasun profesional eta paziente erlazioa sendotzea nahitaezkoa da, familiak erizain eta gainerako osasun taldearengan konfidantza izan eta aurre egite strategiak garatzeko profesional hauek lagungarri kontsideratzeko. Hortaz, behin erizainak interbentzio espezifikoak identifikatuta, hauek banaka edo taldeka lantzea posible izan daiteke, egoera larri honetan dauden eta etorkizun batean egon daitezkeen familia guztiei laguntzeko helburuarekin.

Hori dela eta, kontuan izanda egoera honek familiarengan, hain zuzen gurasoengan, duen inpaktu handia eta erizainek prozesu honen akonpainamenduan duten arduraren oinarrituta, lan hau egitea erabaki da. ^(12, 16) Beraz, lanaren helburua minbizia duten haurren gurasoen erresilientzia prozesuan lagungarriak eta baliagarriak diren aurre egite estrategiak identifikatzea da.

Helburua

Paziente onkologiko pediatrikoen gurasoen erresilientzia prozesuan lagungarriak diren aurre egite estrategiak identifikatzea.

Metodologia

Diseinu mota:

Aurrera eramango den lanak literaturaren errebisio kritiko baterantz hurbiltzen den diseinua izango du.

Bilaketa estrategiaren prozesua:

Behin lanaren helburua definituta, helburua hitz gakoetan deskonposatu da. Hitz gakoak identifikatuta izanik, hauen sinonimoak eta ingelesezko itzulpena aurkitu dira, bilaketa zabalago bat eskuragarri izateko. Hitzak gazteleratik ingelesera itzultzeko DeCS aplikazioa kontsultatu da, eta ondoren, datu base bakoitzaren Tesaurora erabili da lexiko kontrolatuan deskriptoreen zerrenda osatzeko.

Helburutik lortutako hitz gakoak eta bakoitzaren deskriptore esanguratsuenak ondorengoak dira: **(Ikusi 1. Eranskina: Kontzeptu taula)**

- Onkologia (“Oncology”, “Tumor”, “Neoplasm”)
- Paziente pediatrikoa (“Pediatric patient”, “Child”, “Prescholar”)
- Gurasoak, aita eta amari erreferentzia eginez (“Parents”, “Father/Mother”, “Caregivers”, “Family”)
- Aurre egite estrategiak (“Coping”, “Coping mechanism”, “Adaptation” besteak beste)
- Erresilientzia (“Resilience”)

Lortutako deskriptore hauen bitartez, **datu base** ezberdinetan bilaketak egiteari ekin da: *Pubmed*, *Medline*, *Cinhal*, *Psycinfo*, *Cochrane Library* eta *Cuiden*. Bilaketa hauek osatuagoak izateko “AND”, “NOT” eta “OR” operadore booleanoen bitartez deskriptoreen konbinazio ezberdinak egin dira. Hasieran lortutako bilaketa ekuazioetako emaitzetan oinarrituz, iragazkiak aplikatzea edota hitz gako gehiago edo gutxiago erabiltzea erabaki da bilaketa emaitzak murriztu eta gaian zentratzeko.

Hala ere, ez da beharrezkoa izan iragazki asko jartzea, gai berria eta eskuragarria izanik, erresilientzia eta aurre egite estrategia eraginkorrei (*coping*) buruzko ikerketa gehienek minbiziari erantzuten diotelako.

Eskuzko bilaketei dagozkionez, inpaktu-indize altuko eta onkologian erreferenteak diren **aldizkarietan** (*Psycho-Oncology*, *Cancer Nursing*, *European Journal of Oncology Nursing*, *Clinical Journal of Oncology Nursing*, *European Journal of Cancer Care*, *Journal of Advanced Nursing* eta *Psicooncología*), **aldizkarien gordailuan** (*Science Direct*), **Ebidentziara Zuzendutako Baliabideetan** (*National Institute for Health and Care Excellence (NICE)* eta *Registered Nurses’ Association of Ontario (RNAO)*) eta **artikuluen bibliografian** oinarritu da. **(Ikusi 2. Eranskina: Bilaketa estrategia)**

Barneratze eta kanporatze irizpideak:

Artikulu interesgarriak, ebidentzia egokian oinarritutakoak eta gaiari erantzuten diotenak aurkitze aldera, barneratze eta kanporatze irizpide batzuk zehaztu dira, artikulu guztiek iragazki hauek pasatzeko beharra izanik azkenean helburuari erantzuteko aukeratuak izateko.

Barneratze irizpideak:

Hizkuntza

Bilaketa bibliografikoa aurrera eramateko gaztelaniaz eta ingelesez aurkitzen diren artikuluak kontuan hartu dira.

Argitalpen data

2008-2019 urteen bitartean publikatutako bibliografian oinarritu da errebisioa. Data tarte hau esleitzeko helburua artikulu kopuru esanguratsua baina aldi berean datu eguneratuak eskuratzea izan da.

Gaia

Helburuari erantzuten dioten artikuluak kontuan hartu dira. Minbizia duten haurren gurasoen erresilientzia prozesuan lagungarriak diren aurre egite estrategia eraginkorrek lantzen duten artikuluak lortzea hoberena izango litzateke. Hala ere, ikreketa eskasaren ondorioz, gurasoengan erresilientzia soilik edo aurre egite estrategiak lantzen dituzten artikuluak ere barne hartu dira.

Populazioa

Minbizia duten paziente pediatrikoen gurasoak kontuan hartu dira errebisio bibliografiko honetan. Minbizi pediatrikoari buruz hitz egitean, hau 0-14 urte bitarteko haurrek pairatzen duten minbiziari buruz deritzo, mutil zein neska izan.⁽⁷⁾

Herrialdea

Ez da limitaziorik jarri herrialdeak definitzean, nahiz eta ulertzen den kultura konponenteak aurre egitea eta ondorioz erresilientziaren garapena baldintzatzen duela. Honen arrazoia Europako literatura soilik kontuan hartuta, Asiako eta beste lurraldeetako ikerketa interesgarri anitz galduko liratekela da.

Argitalpen mota

Aurkitutako bibliografia *full text*-ean egon behar da. Literaturaren errebisioa egiteko, ondorengo artikuluak onartu dira:

- Ikerketa artikulu originalak: artikulu kuantitatibo zein kualitatiboak
- Errebisio sistematikoak

- Literaturaren errebisioak
- Meta-analisiak
- Praktika klinikoko gidak

Kanporatze irizpideak:

Barneratze irizpideak betetzen ez dituzten artikulua guztiak zuzenean berrikusketa honetatik kanporatuak izan dira. Hots, gaztelania edo ingelesez ez dauden artikulua, iritzi artikulua eta literatura grisa eta 2008. urtea baino lehenago publikatutako artikulua ez dira onartu. Populazioari dagokionez, 14 urte baino gehiago duten haurren gurasoak ez dira onartuko, minbizi pediatrikoaren definizioan oinarrituz.⁽⁷⁾

Artikuluen hautaketa prozesua:

Helburuari erantzungo dioten artikuluen behin betiko aukeraketa egiteko, aurretik ezarritako barneratze eta kanporatze irizpideetan oinarrituz egin da.

Lehenengo hautaketa bat egin da bilaketa ekuazioa jarri ondoren lortutako emaitzak bilduz. Hautaketa honetan argitalpen urtearen iragazkia jarri da 2008. urtea baino lehenagoko publikazioak, helburuari erantzuten ez diotenak eta hizkuntza irizpidea betetzen ez dutenak kanporatuz. Jarraian, bigarren hautaketa baten bitartez artikuluen izenburu eta laburpenak (*abstract-ak*) irakurri dira, errepikatutako artikulua eta gaiarekin erlaziorik ez dutenak baztertuz.

Behin barneratze eta kanporatze irizpideak betetzen dituzten artikulua aukeratuta, eta beraien *abstract-ak* helburuari erantzuten ziotela ikusia; artikulua hauen *full-text*-a lortzen saiatu da, prozesu honetan zenbait artikulua baztertuak izanik hauek eskuratzeko zailtasunen ondorioz. Honen bitartez, hirugarren hautaketa aurrera eraman da. Bukatzeko, azken edo laugarren hautaketa egin da, *full text*-ean lortutako artikulua zehaztasunez irakurri ondoren helburuari erantzuteko erabilitako bibliografiaren barne kontsideratutako direnak aukeratzeko.

Aipatutako urrats guztiak diagrama fluxu baten bitartez adierazi dira. **(Ikusi 3. Eranskina: Fluxu diagrama)**

Hasiera batean datu baseetan bilaketak egin dira, baina eskuzko bilaketak ere burutu dira hauen barne Evidentziara Zuzendutako Baliabideak, aldizkariak eta artikuluen bibliografiak egonik, guztira 23 artikulua eskuratuz. Hauetatik, 13 ikerketa kuantitatiboak dira, 4 ikerketa kualitatiboak, 2 errebisio sistematikoak, 2 literaturaren errebisioak eta azkenik 2 Praktika Klinikoko Gidak. Artikuluen informazioa laburpen taula batean bildu da. **(Ikusi 4. Eranskina: Emaitzetarako artikuluen laburpen taula)**

Ikerketa kuantitatiboen kasuan, guztira 13 artikulua lortu dira, eta hauek ikerketa kritikoko parrila baten bitartez ebaluatu dira kalitate metodologikoa neurtzeko helburuarekin. **(Ikusi 5. Eranskina: i) Artikulu kuantitatibo baten azterketaren irakurketa kritiko garatua eta 5. Eranskina: ii) Gainerako artikulua kuantitatiboen azterketaren irakurketa kritikoa)**

Zuhaitz kategoriala:

Errebisioaren helburuari erantzuteko 23 iturrietan oinarritu dira emaitzak. Hauek sakontasunean landu ondoren, kategorien araberako analisi bat burutu da. Artikuluetan lantzen den informazio garrantzitsuena kontuan izanda, 2 kategoria nagusi bereiztu dira. Alde batetik, minbizia duten hurren gurasoengan erresilientziaren garapena ematen den aztertu da. Beste alde batetik eta lanaren helburuari erantzuteko asmoz, erresilientzia prozesuan lagungarriak diren aurre egite estrategiei buruzko eztabaida egin da Campos et al-en meta-analisan oinarrituz, estrategia lagungarriak eta ez-lagungarriak edo zalantzatan daudenak identifikatuz.

(Ikusi 6. Eranskina: Zuhaitz kategorikoaren eskema)

Emaitzak eta eztabaida

Lan honen helburuari erantzuteko, 23 informazio-iturri aukeratu dira. Iturri hauek aurreko atalean azaldu direnak izan dira, eta aipatu bezala, bi azpi kategoriatan bereiztu dira: erresilientziaren garapena minbizia duten paziente pediatrikoen gurasoengan eta honetan lagungarriak diren aurre egite estrategiak.

Gurasoen erresilientzia prozesuan lagungarriak diren aurre egite estrategiei buruzko eztabaida aurrera eramane baino lehen, minbizidun pediatrikoen gurasoengan erresilientziaren garapena ematen den aztertu da.

5.1. Erresilientziaren garapena minbizia duten paziente pediatrikoen gurasoengan:

Gurasoentzat beren haurraren gaixotasun prozesuak bizitzako egoera traumatikoa suposatzen du, Ye Z et al-ek⁽²¹⁾ beren lanean adierazi bezala. Honen ondorioz shock, depresio, antsietate, sinesgaiztasun eta gainerako sentimendu negatiboak azaleratzen dituzte, besteak beste, eguneroko bizitza oztopatuz. Hala ere, Petrus A et al⁽²⁸⁾ eta Van Schoors et al⁽²⁹⁾ bezalako autoreek famili erresilientzia ikertzean, gurasoek egoera traumatiko honi ez soilik aurre egin, baizik eta erresilientzia garatzea lortzen dutela ikusi zuten.

Honi helduz eta erresilientziaren definizioa identifikatzeko helburuarekin, Abby Rosenberg-ek *Journal of Palliative Medicine*⁽²⁵⁾ eta *Support Care Cancer*⁽³⁰⁾ aldizkarietan egindako publikazioetan oinarritu izan da. Rosenberg-en ikerketetan, honek erresilientzia estres edo egoera traumatikoei eutsi eta gainjartzean oinarritzen dela adierazi zuen, honi esker heziketa psikologiko prozesu bat garatuz.^(25, 30) Hala ere, autore berak erresilientziaren definizio bakarra lortzea zaila dela berretsi zuen, honengan eragina duten faktore eta bizipenak pertsonalak eta norbanako batetik bestera aldagarriak baitira.⁽²⁵⁾

Nahiz eta definizio bakarra emateko unifikazio falta egon, autore gehienek Fergus eta Zinnerman-ek erresilientziari buruz emandako definizio bera goraipatu zuten, ezbeharraren aurrean adaptazio positibo bat lortu eta errefortzu positiboa izaten laguntzen duen prozesua bezala adieraziz.^(14, 28, 31, 32)

Azken urteotako ikerketen eta psikologia positiboaren eragina dela eta, erresilientziaren kontzeptuari famili erresilienteen definizioa gehitu zaio. Van Schoors et al autoreek⁽²⁸⁾ honi buruz ikertu zuten beren publikazioan, famili erresilienteak minbizi pediatrikoaren erronkaren ondorioz adaptazio eta heziketa prozesu bat aurrera eramateko gai direnak bezala definitu zituen. Hortaz gain, famili funtzionamenduaren domeinu batean edo gehiagotan (famili

kohesioa, adaptazioa, komunikazioa...) egokitasun maila handia lortzen duten familiak bezala definitzen dira. ⁽²⁸⁾

Ildo beretik jarraituz, erresilientzia familiarrean bi dimentsio nagusi bereizi daitezke: barne faktoreak eta kanpo faktoreak. ^(14, 31) Barne faktoreak pertsonak berak dituen ezaugarriak egiten die erreferentzia; kanpo faktoreak, aldiz, famili ezaugarriak, gaitasunei, errekurtsoei eta denborarekin ikasitako aurre egite estrategiei bideratuta daude. ^(30, 31) Honekin lotuz, etorkizun batean erresilientzia familiarra neurtzeko indikadore batzuk kontuan izan beharko zirela adierazi zuten Van Schoors et al-ek ⁽²⁸⁾, indikadore horien artean trebetasuna, familia bateratua mantentzeko gaitasuna eta kide bakoitzaren garapen pertsonalaren promozioa bereiztu.

Nahiz eta klinikoki erresilientziaren ebaluazio kualitatiboa egiteko aukerak egon, honen neurketa kuantitatiboki egitea etorkizunerako erronka handi bat izaten jarraitzen du. ^(30, 31) Neurketa hau posible izateko, pertsonaren funtzio psikosozialean eragina duten elementu anitzak kontuan hartu behar dira, beraz, erresilientziaren teoria ezberdinak bere baitan hartzen dituen eskala baten beharra dago. ⁽³⁰⁾ Gaur egun gehien erabiltzen den eskala *CD-RISC-10 (10-item Connor-Davidson Resilience Scale)* da ⁽³³⁾, non egoera jasan, aldaketak aurrera eramanez, arazo pertsonalak, gaixotasuna, sentazio mingarriak eta porrota neurtzen diren, azkenean emaitzen kontaketa aurrera eramanez eta puntuazio altuak erresilientzia maila altua adierazten duelarik.

Eskala honen aplikazioaren eta balorazio subjektiboaren bitartez, hainbat autore izan dira urteetan zehar minbizidun haurren gurasoen erresilientzia maila neurtu dutenak. Horren adibide Bajjani-Gebara et al dira ⁽¹³⁾, 2018. urtean *Cancer Nursing* aldizkarian egindako ikerketan minbizia zuten haurren 80 gurasoen laginean oinarrituz hauen %75,2-ak erresilientzia balore altuak adierazi zutela ondorioztatu baitzuten. Honekin jarraituz, Mexikon González-Arratia et al-ek ⁽¹⁴⁾ ere ikerketa bat burutu zuten, non minbizidun haurren gurasoek (kasu honetan amak) azaleratzen zuten erresilientzia moderatu-altua bitartekoa zela ondorioztatu zuten.

Era berean, Belgikako bi hiritan egindako ikerketei esker, Leuven-en 2013. urtean ⁽²⁸⁾ eta Ganten 2015. urtean ⁽²⁹⁾, familia barnean minbizia pediatrikoa zuten guraso gehienek erresilientzia faktore positiboak garatu zituztela ikertu zen, familiek egoera berriari moldatzea ez ezik, honi esker heziketa prozesu bat burutu eta garapen positiboa lortuz. *Psicooncología* aldizkarian 2018. urtean publikatutako berrikusketa sistematiko baten bitartez ⁽³¹⁾, ondorio berdinerara heldu zen: minbizia zuten haurren gurasoak eta familia oso erresiliente bezala definitzen ziren.

Orain arte esandakoa kontuan izanda, ikus daitezke familiako haurraren minbizi diagnostikoa bizitzako momenturik traumatiko eta zailena bezala definitu arren, gurasoek egoera honen aurrean adaptazio egokia lortzen dute. Honi esker, hasiera batean adierazten zuten estres eta antsietate mailak behera egiten du, familia erresilienteak kontsideratuz. ^(13, 14, 25, 28, 29, 31, 32)

Erresilientziaren garapena emateko hasiera batean norbanakoaren ezaugarriak garrantzitsuak direla defendatu zuen Rosenberg autoreak ⁽³⁰⁾, era berean, ikasitako eta martxan jarritako aurre egite estrategia eraginkorrak ere funtsezkoak zirela adierazi zuen. Beraz, errebisatutako literaturan oinarrituta, hurrengo atalean erresilientzia prozesuan eragina duten aurre egite estrategia lagungarriak aztertuko dira, heziketa eta garapen prozesu egokia aurrera eramaten lagundu dezaketenak. ^(13, 21, 25, 30)

5.2. Aurre egite estrategia lagungarriak:

Campos et al-en meta-analisan oinarritu da azpi kategoria hau ⁽¹⁷⁾, lagungarriak diren emozioari zein arazoari zuzendutako aurre egite strategiak aztertzeko. **(Ikusi irudia 2 esparru kontzeptuala eta justifikazioaren atalean)**

Aurkitutako bibliografian oinarrituz, eta aldi berean Lazarus eta Folkman-en teoria oinarri izanik, minbizia duten haurren gurasoengan aurre egite estrategia eraginkor eta lagungarriak identifikatu dira. Lehenik estrategia bakoitzaren definizioa eman da, ondoren ikerketa ezberdinen arteko eztabaida aurrera eramanez.

5.2.1 Arazoaren ebazpena

Aurre egite estrategia honek arazoan oinarritzen diren ekintzak biltzen ditu, Campos et al-en arabera. ⁽¹⁷⁾ Bere baitan ekintza instrumentalak, aktiboak eta egoeraren analisia, egoera kontrolpean izatea, orainaldian oinarritzea, esfortzu, persistentzia eta determinazioarekin erlazionatutako aktibitateak bereizten dira, besteak beste. ⁽¹⁷⁾

“Arazoaren ebazpena” aurre egite estrategia lagungarri bezala definitzen dute autoreek, nahiz eta batzuek iritzi ezberdinak goraiatu, estrategia honen barne dauden ekintzei esker gurasoak erresiliente izateko bidean kokatzea lortzen dutelako.

Rosenberg et al-ek 2014. urtean ⁽³³⁾ egindako ikerketa kualitatiboaren arabera, arazoaren ebazpenerako ezinbestekoa zen egoerak sortzen zuen estresa maneiatzea, minbiziaren diagnostikoak zer esan nahi zuen identifikatzea, egoerak ekarritako alde positiboak baloratzea eta, hortaz gain, helburu errealistak ezartzea. Era berean, Neil et al-ek ⁽³⁴⁾ minbizi pediatrikoari aurre egitean, egoerari esanahi bat eman behar zitzaiola ere berretsi zuen, honek norbanakoaren baloreen eta hauen lehentasunen hausnarketara bultzatzen zuelako.

Hortaz gain, Miedema et al-ek ⁽³⁵⁾ minbizia zuten haurren 28 guraso lagin bezala hartuz, hauetatik %54-ak arazoaren ebazpenean oinarritutako aurre egite strategiak erabiltzen zituztela adierazi zuten. Miedema et al-ek ⁽³⁵⁾ zein Eilertsen et al-ek ⁽³⁶⁾ ondorio berdinerari iritsi ziren beren ikerketan, bi ikerketetako gurasoek familia funtzionamendua aurrera eramateko organizazioa eta plangintza beharrezkoa zela berretsi zutelako. Hori aurrera eramateko,

egoeraren analisisa eta familia beharren balantza egitea ekintza lagungarri bezala definitu zituzten gurasoek. ^(35, 36)

Hasieran aipatu bezala, arazoaren ebazpenaren barnean orainaldian oinarritzea bereizten den beste ekintza bat da. Honi erreferentzia egin zioten He et al-ek Txinan egindako ikerketa deskriptibo batean ⁽³⁷⁾, gurasoek minbiziaren ondorioz bizitzako aspektu gehienak bigarren plano batean uzten zutelako. Oreka biopsikosozialaren galerari aurre egiteko, gurasoek orainaldian oinarritzea eta aukera berriak aprobetxatu eta bizitzea ezinbestekoa zela adierazi zuten, etorkizunean zer gertatuko den iragartzen saiatu beharrean. ⁽³⁷⁾ Norabide berean, Miedema et al-en ikerketan ⁽³⁵⁾ 28 gurasoetatik, %21-ak momentua bizitzea eta ikuspegia orainaldira bideratzea positiboki baloratu zuten; eta Rosenberg-ek ⁽²⁵⁾ ere orainaldian ardatza mantenduz helburu errealistak planteatzeak zituen emaitz positiboak aztertu zituen.

Chinchilla-Salcedo-k ⁽³⁸⁾, ordea, minbizi prozesuan zehar itxaropena mantentzea erresilientziaren garapen prozesurako faktore garrantzitsua dela identifikatu zuen. Gurasoen esanetan, itxaropena prozesuan zehar bizitako emozio eta esperientzei esker garatzen zen, eta etorkizuna eraikitzekeo lagungarria izan zen. ⁽³⁸⁾

5.2.2. Sostengu soziala bilatzea

Estrategia honek kontaktu eta kontsolamendua bilatzeari, laguntza instrumental edo aholkuak elkar konpartitu eta batez ere, emozioak lantzeari egiten dio erreferentzia. ⁽¹⁷⁾

Berrikusitako literaturan oinarrituz, autoreek “sostengu soziala bilatzea” aurre egite estrategia eraginkorrenetarikoa bat kontsideratu zuten, erresilientziaren garapenerako guztiz beharrezkoa izanik. Honen barnean hainbat azpiatal bereiztu zituzten, sostengu sozial motaren arabera sailkatuta: familia, osasun taldea eta egoera berdinean dauden gurasoak. ^(29, 31, 32, 34, 36-41)

○ **Familia**

Lehen sostengu sozialaren aipamena familiari dagokio, literatura ezberdinek famili arteko kohesioa eta komunikazioa mantentzeak denboran zehar garatu daitekeen erresilientziaren parte identifikatu izan dutelako. ^(15, 25, 34, 36)

Familia batasuna estres egoeran babes faktore garrantzitsuenetarikoa kontsideratzen zen González-Arratia et al ⁽¹⁴⁾, Navea et al ⁽³¹⁾ eta He et al ⁽³⁷⁾ autoreen arabera. Autore hauek ikertutakoan oinarrituz, famili arteko erlazio afektibo eta komunikazio positibo eta irekiak segurtasuna, egonkortasuna eta sostengua bermatzen zuela adierazi zuten. ^(14, 31, 37)

Greiff et al-en ⁽²⁹⁾ autoreak berdina sostengatu zuen, bere ikerketako 25 gurasoen laginetik %52-ak familia barneko errekursoak positiboki lagungarriak kontsideratu baitzuten. Guraso hauek, famili barneko elementu lagungarrien barnean ondorengoak ezberdindu

zituzten: gertutasuna, bata bestea ulertzea, zintzotasuna, konfiantza, elkarren arteko zaintzaile izatea, elkarrekin denbora igarotzea eta komunikazio modu irekia. ⁽²⁹⁾

Van Schoors et al autoreek egindako errebisioan ⁽²⁸⁾ Greeff et al-en ⁽²⁹⁾ ikerketan adierazitako famili barneko errekurtsio lagungarrien artean horietako bat bereiztu zuten: komunikazio irekia, efektiboa eta argia. Horretarako 85 artikuluen errebisio sistematikoa bat burutu zuten, eta artikulua kualitatiboetan oinarrituta, gurasoen (amak) %70-ak familia barneko komunikazioa maila berean mantendu edo handitu zutela adierazi zuten, hau zabala eta irekia izanik. ⁽²⁸⁾ Hala ere, ikerketa berean ikusi zen minbizi diagnostikoak familia funtzionamenduaren etenaldia eragiten zuela, gurasoen %59-ak hasierako unean informazioa ezkatzea erabakitzen zutela honen erreflexu izanik. ⁽²⁸⁾ Hala eta guztiz ere, horrek ez du esan nahi haustura familiarra ematen zenik, nahiz eta une batzuetan familiaren estresa handitu, famili gehienak erresiliente identifikatzen zirelako prozesuan zehar. ⁽²⁸⁾

Shi et al-ek *Support Care Cancer* aldizkarian argitaratutako ikerketan ⁽³⁹⁾, minbizia duten haurren gurasoengan estres post-traumatikoa eragina duten faktoreak aztertu zuten. Autoreen arabera, famili ingurunea, kohesioa eta famili funtzio orokorra mantentzeak estres post-traumatikoarekiko korrelazio negatiboa zuen, erresilientzia garatzea ahalbidetuz. ⁽³⁹⁾

Ildo berean, Jones et al-en “*Quality care for family caregivers in pediatric cancer care*” artikuluan ⁽⁴⁰⁾ gurasoen aurre egite estrategiei buruz ikertu zuen, gurasoengan egoera traumatikoaren ondoren hazkuntza eta erresilientzia gertatzen zela egiaztatuz. Jones et al-ek faktore babesgarrien artean familia barnean optimismoa izatea eta famili funtzioa eta estruktura mantentzea identifikatu zituen, gurasoen iritziz, erresilientzia prozesuan lagungarri izanik. ⁽⁴⁰⁾ Ye et al-k ⁽²¹⁾ ideia bera babestu zuten, erresilientzia positiboki korrelazionatuz elkarrekin kooperatu eta familia batera eta optimista mantentzearekin. ⁽²¹⁾

○ **Osasun taldea**

Bigarren sostengu sozialaren aipamena osasun taldeari dagokio, babes faktore garrantzitsu bezala identifikatzen baita minbizi pediatrikoa bizi duten gurasoentzat. Osasun profesionalen sostengu emozionalaren bitartez diagnostiko uneko inpaktua murriztu eta tratamendu eta ospitalizazio prozesu osoan zehar akonpainatuta egotearen sentimendua nabarmendu dute, batez ere, gurasoek. ^(21, 34, 38, 41)

Osasun taldea erizainek, medikuek, gizarte langileek, psikologoek, psikiatrak, zainketa aringarriko taldeak eta abarrek osatzen dute ^(25, 37), eta He et al-ek *Cancer Nursing*-en publikatutako literaturaren arabera ⁽³⁷⁾, gurasoen beharrak asetu eta prozesuan zehar lagundu ahal izateko osasun taldeak familia bakoitzaren egoera eta ziurgabetasunak identifikatu beharko lituzkete. Literatura berean profesionalen funtzioa babesa ematea, eskura dauden errekurtsioak ahalbidetzea eta informazio ulergarri eta egokia ematea haurren diagnostiko, egoera, tratamendu eta pronostikoari buruz zela identifikatu zen, besteak beste. ⁽³⁷⁾ Ye et al-ek ⁽¹⁵⁾ eta Shi et al-ek ⁽³⁹⁾, hortaz gain, gurasoekin haurren tratamendu prozesuan zeuden

arriskuak eta xehetasunak birgogoratzea eta aholku psikologikoak ematea eginkizunen barne gehitu zuten, gurasoek izan ditzaketen zalantzak argitu eta lehentasunak kontuan izateko. ^(15, 39)

González-Arratia et al-en errebisioan ⁽¹⁴⁾, aipatutakoaz gain, osasun profesionalen eginkizunaren barne gurasoen parte hartzea bultzatzea bereiztu zuten, heziketa aurrera eramanez estresaren prebentzio eta maneian laguntzen zuela ikusi zutelako.

Amaitzeko, osasun taldearen eta familiaren arteko komunikazioari dagokionez, hau bi norabidetakoa eta familian oinarritutako izatea beharrezkoa dela identifikatu zuten Neil et al-ek beren analisisian. ⁽³⁴⁾ Rosenberg et al-ek ⁽²⁵⁾ ideia bera sendotu zuten, komunikazioaren optimizazioari esker gurasoen erresilientziaren eboluzioa lortzen zela ikusiz.

- **Egoera berdinean dauden gurasoak**

Azpiatal honekin amaitzeko, sostengu sozialaren barnean bereizten den azken faktorea familia kanpokoekin interakzionatzea da, Greeff et al-en ikerketan ⁽²⁹⁾ gurasoen %57-ak eta haurren %38ak lagungarri bezala identifikatu bezala. Honen barne, interakzio lagungarriena egoera berdinean dauden familiekin izan zen, ikerketa berdineko gurasoen %43-ak eta haurren %23-ak iritzietan oinarrituz. ⁽²⁹⁾

Miedema et al-en ⁽³⁵⁾ ikerketako gurasoen iritzian oinarrituz, hauen %32-ak aurretik egoera bera bizi duten gurasoekin esperientziak partekatzeak positiboki laguntzen zuela adierazi zuten. Hori aurrera eramateko, familia batzuk talde terapia edo fundazio ezberdinetara joaten zirela adierazi zuten, erresilientziarekin positiboki korrelazionatuz. ⁽³⁵⁾

Hala ere, sostengu sozial mota honetan kulturak eragin handia zuela ikertu zuten Ye Z et al-ek ⁽²¹⁾. Autore hauek ikertutako familietan oinarrituz ⁽²¹⁾, zeintzuk Txinako kulturaren arabera jarduntzen zuten, gurasoek inguruko pertsonen laguntza errefusatzeko eta lagunen bisitak murriztea nahiago zutela ondorioztatu zuten. Shi et al-ek ⁽³⁹⁾, ordea, kultura berdineko famili funtzioa eta famili estrategiak sustatzeko kanpokoekin sostengu sozialaz hornitzea beharrezko bezala identifikatu zuten.

Beraz, nahiz eta ohitura kulturek garrantzi eta eragin handia izan, ondorioztatu daiteke ingurukoekin laguntza jasotzea positiboki baloratu zela gurasoen erresilientzia prozesuari dagokionez. ⁽³⁹⁾

5.2.3. Saihestea, supresio emozionala

Hirugarren aurre egite estrategia "*saihestea eta supresio emozionala*"-ri dagokio. Campos et al-en ⁽¹⁷⁾ arabera, honen barne, saiheste kognitibo eta konduktuala, arazoaren saihestea, behar berriak ez onartzea, moldaketa aurrera ez eramatea, eta abar bereizten dira. Hortaz gain, aurre egite ez efektiboaren parte diren ekintzak ere bereizten dira estrategia honen barne, alkohol eta beste drogen kontsumoa identifikatuz, besteak beste. ^(17, 35)

Ekintza hauek antsietate, depresio eta egoeraren doitze eskasarekin erlazionatzen dira, ongizate psikologikoarekin korrelazio negatiboa izanik. ⁽¹⁷⁾ Ondorioz, saihestea eta supresio emozionalarekin erlazioa duten ekintzak ez zen erresilientziaren prozesurako lagungarri kontsideratu. ⁽¹⁷⁾

Miedema et al-ek ⁽³⁵⁾ minbizia zuten haurren gurasoek erabiltzen zituzten aurre egite estrategiak aztertu zituzten, eta 28 gurasoen laginetik %36-ak sentimendu zailetatik ihes egitea edo saihestea erabiltzen zutela ikusi zen. Adibide bezala ikerketan parte hartutako gurasoetako baten lekukotza zegoen, non honek adierazi zuen *“haurrak dituzten lagunekin egotea saihesten dut; egoeratik ihes egiten dudala? Izan daiteke, baina momentu honetan horri aurre egiteko prest ez nagoelaren ziurtasuna daukat.”* ⁽³⁵⁾

Nóia TC et al-en ikerketa kualitatiboan ⁽⁴¹⁾, hainbat familiek *“arazoa”* edo *“gaixotasuna”* hitzak erabiltzen zutela ondorioztatu zuten *“minbizia”* esan beharrean. Honen arrazoia minbizi diagnostikoa onartzeak suposatzen zuen zailtasunaren isla zen, defentsa mekanismo bezala honen saihestea erabiliz. ⁽⁴¹⁾

1986. urtean egindako Lazarus eta Folkman-en teorian oinarritu ziren Ye et al ⁽³²⁾ *European Journal of Oncology Nursing* aldizkarian argitaratutako publikazioan. Bertan, 500 gurasoen lagina hartu zuten, eta Lazarus eta Folkman-ek esan bezala, guraso askok egoerak eragiten zioten sentimendu indartsuak saihestea erabaki zuten adaptazioa lortze aldera. ⁽³²⁾ Nahiz eta jokaera hau gizakion berezkozat hartu, zenbait gurasoentzat baliagarri izan daiteke, baina beste batzuei adaptazioaren kontrako biderantz bultzatu diezaioke. ⁽³⁵⁾

Beraz, ikusi zen egoera saihestea guraso askok erabiltzen zuten aurre estrategia bat zela ^(32, 35, 41), baina nahiz eta hasiera batean gurasoak hobeto sentitzeko teknika bezala erabili, etorkizunari begira *coping* ez-lagungarria eragiten du. Gurasoek haurraren minbizi diagnostikoari aurre egin ezean, honek eragindako estres egoera gainditzea ezinezkoa zela adierazi zuten Ye et al-ek ⁽³²⁾, erresilientziaren garapena oztopatuz.

5.2.4. *Distrakzioa*

Aurre egite estrategia honek egoera estresagarriaren aurrean beste ekintzak burutzeari egiten dio erreferentzia, egoeraren onarpena burutu baina honek norbanakoarengan duen eragina minimizatzeko helburuarekin. ⁽¹⁷⁾

